

## Berrikasi eta berrikusi

### Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako

Badira urte batzuk euskaltzaletasuna ziklo aldaketa batean dagoela azpimarratzen ari dela. Euskalgintzaren hamarkadatarako ekarpena eta horrek komunitatearen hazkundean izandako eragina agerikoa izan da, baina era berean, azken urteotako datuetan geldialdi zantzuak nabarmenak dira.

Iritzi asko eta askotarikoak daude bai azken bost-sei hamarkadatan egindako ibilbideari buruz eta baita etorkizuneko erronken gainean ere. Sarri gainera, iritzi horien arteko aldeak dira euskaltzaleon arteko eztabaiden ardatz.

Euskaltzaleok etorkizuneko bisio partekatu baten bueltan elkartzeari garrantzia eman diogu Euskaltzaleen Topagunean, batzen gaituena garrantzitsuagoa dela uste dugulako eta etorkizuna batasunetik soilik eraikiko dugulako.

Etorkizuna irudikatzeke, baina, garrantzitsua da azken hamarkadetarako irakurketa kritikoa egitea, ondorioak atera, irakaspenak identifikatu eta estrategiak berrikusteko balioko duen irakurketa kritikoa. Etorkizunari begirada berri bat emateko helburuarekin osatu du Topalabea taldeak Berrikasi eta Berrikusi dokumentua, hain zuzen. Begirada bakar bat osatzeko baino, eztabaida zintzoa bultzatu eta euskaltzaleon arteko esparru komun berriak lortzeko bokazioz sortu den dokumentua da.

Topaberriren 66. zenbaki hau gonbidapen batekin hasi nahi dugu, beraz. Irakurri, eztabaidatu eta iritziak partekatzeko gonbidapena da hau, euskaltzaleok etorkizuneko erronkak adostu eta komunitate modura garatzeko estrategiak batera martxan jartzeko gonbidapena.

# berrikasi eta berrikusi

euskararen azken mende erdiaren errepasoa,

irakurketa horretatik etorkizuna ondorioztatzeko

Kike Amonarriz • Julen Arexolaleiba • Xabier Erize

Mikel Irizar • Elena Laka • Iker Martinez de Lagos

Iñaki Martinez de Luna • Jasone Mendizabal • Jon Sarasua

“Hizkuntza ikastea, gramatika bat bereganatzea baino gehiago hizkuntza komunitate batetan murgiltzea, itsastea da” (Iñaki Larrañaga, JAZTEN 1-18 .orr.)

“Euskalduntasunarenak izan behar du alternatiba eta kondizio bakar-bakarra euskararen aldeko benetako herri mugimenduarentzako, talde politikoen parametroetatik aldendu behingoz eta garenak garela gauzak ondo egin” (Julen Arexolaleiba, JAZTEN 1-26. orr.)

“Ezberdintasun politikoen ondorioz ekimenik jatorrenak manipulatzeko joera dagoen gizarte honetan, zabaltasunaren eta batasunaren baldintza hau funtsezko bihurtzen da” (Iñaki Mendiguren, JAZTEN 111- 6. orr.)

“Gure lanak ingurukoak erakartzera jo behar du; inoiz ez dauden baino urrunago uxatzera” (Julen Arexolaleiba, JAZTEN 111- 40. orr.)

“Gauza bat argi dago: edo elkarlanerako bidea egiten dugu, edo bestela euskarak ez du etorkizunik, nik behintzat hain latz ikusten dut” (Mikel Ugalde, JAZTEN 111- 44. orr.)

“Orduan, konpaktazioa behar-beharrezkoa da, euskara helburu jartzen duelako, eta bestelako arazo politikoetatik euskaraz autonomia behar duelako” (Paulo Agirrebaltzategi, JAZTEN 111 - 47. orr.)

“Ezinezkoa da euskal gizarte integrazioa euskal hizkuntza komunitatearen berregituraketarik gabe” (Iñaki Larrañaga JAZTEN 10 – 36. orr.)

## SARRERA

Dokumentu hau da euskaltzaletasunaren azken hamarkaden irakurketa kritiko bat, etorkizuna begi berriz ikusteko helburuarekin egina. Eztabaida zintzoa suspertu nahi luke egin dugunaz, eskarmentu horrekin hobeto ekin diezaiogun egiteko dugunari.

Sinetsita gaude asko komeni zaiola euskararen komunitateari esparru komunak sendotzea eta zabaltzea, beharrezkoa dugula euskaltzaleok barneratzea batzen gaituena garrantzitsuagoa dela eta soilik denon arteko lankidetzarekin lor lezakeela euskarak bere iraganari dagokion etorkizuna.

Espainiako gerra zibilaren ondorenetik hasi eta gaur arte, joan-etorri ugari izan ditu euskararen aldeko mugimenduak. Eta ibilbide horren bihurtzeetan dagoen eskarmentua jasotzeko ahalegina egin dugu Euskaltzaleen Topaguneak bildutako talde batek. Zer egin den ondo euskararen mesede, horretan jarraitzeko eta sakontzeko; eta zerk egin dion kalte euskaltzaleon mugimenduari, okerrak zuzendu eta etorkizunean saihesteko.

Hiru fase bereizi ditugu kontaktetan, bakoitzak ezaugarri bereziak dituelakoan, eta azken atalean ondorioetara jo dugu. Kontu historikoen gainetik etorkizuna inporta zaigulako.

### IRAKURKETA • FASE GOIZTIARRA: 1950-1975

Oro har, galtzaileen aldean kokatu ziren euskaltzaleak Espainiako gerra zibilean eta, hura bukatuta, lurpean geratu ziren aurrez abiarazitako hainbat ekimen hizkuntzaren aldekoak. Gerra ondorengo lehen urteetan euskararen egoerak atzerakada izugarria jasan zuen, euskaltasunaren katea ia eteteraino.

#### 50. hamarkada

Susperraldiaren lehen zantzuak atzerrian hasi ziren, batez ere Amerika aldean. Aldizkarietan, literaturan eta biltzarretan hasten dira azaltzen, apurka-apurka, galeraren minak eta aurrera begirako esperantza printzak. Klandestinitate erabatekoan, halabeharrez. Gerra aurretik sortutako hainbat erakundek –Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntzalanari ekiten dio berriro, eta 1956an Parisen egin zen I. Euskal mundu-biltzarrak eragin handia izan zuen, bildu zituelako Euskal Herri barruko eta kanpoko eragileak. Mugarri garrantzitsua da euskararen historian.

#### 60. hamarkada

Bikoiztu egiten da Hego Euskal Herriko populazioa Espainiatik iritsitako etorkinak medio. Lehendik ere bazuen euskal komunitateak gutxiagotasun-komplexua, mendeetako hizkuntza-ordezkatze prozesuaren ondorioz, eta etorrera masibo horiek uzten dute are ezdeusago, urtuago erdal ingurune erabatekoan.

Garai berean, ordea, nabaritzen hasten dira diktaduraren aurkako mugimenduak han eta hemen. Gerra ezagutu ez zuen belaunaldi berria hasten da erreleboa hartzen herrigintzan eta euskalgintzan. Ordurako XIX. mendeko 'vasquismo'a galdua zen eta euskaltzale ia guztiak alderdi abertzaleekin lotzen ziren.

Abertzaletasun tradizionalaren oinordeko zen EAJ-PNVrekin konpondu ez eta belaunaldi berriaren baitatik ETA sortzen da. Hedatzen ari da diktadurarekin amaitu nahia, eta euskararen aurrerabidea bera defendatzen da askatasunaren eta demokraziaren izenean.

Hamarkada honetan hasten da euskal komunitatea jomuga berriak irudikatzen eta estrategiak

## Komeni zaio euskararen komunitateari esparru komunak sendotu eta zabaltzea

hezurmamitzen eremu askotan: euskararen estandarizazioan eta normatibizazioan, ikastola eta gau eskoletan, hedabide eta argialetxeetan, formazio intelektualean eta kulturgintza kolektiboan. Aitzindarien belaunaldi bat 'Ezina ekinez egina' le mari lotzen zaio.

Zenbaitetan Euskaltzaindiaren babesa erabilia eta apaiz euskaltzaleak ere tarteko, herri-mugimendua hasten da azpiegitura minimo bat gorpuzten eta garatzen. Euskaltzaleak kalera irteten hasten dira, auzolanean antolatzen eta saretzen, egiteko ugariei heltzen hasteko.

Motibazioa, militantzia, arriskua, ilusioa... Horiek dira sasoi honetako hitz gakoak. Urruti ikusten zen artean profesionalizazioa.

## **IRAKURKETA • TRANTSIZIO-FASEA: 1975-1995**

### **Auzolana: 1970-1975**

Euskaltzaleek sakontzen jarraitzen dute 'Ezina ekinez egina' jardunbidean. Herritarrengan euskararekiko motibazioa askoz ere handiagoa da ezagutza baino, zer esanik ez erabilerarekin alderatuz gero. Uneko egoera larria da, baina etorkizuna aukeraz bete irudikatzen zen.

Garai honetan hasten dira alfabetatzen jatorriz euskaldun zirenak. Eta -esanguratsua dena- jatorriz euskaldun ez direnak hasten dira euskara ikasten, ikastoletan eta euskaltegietan. Desiragarri bihurtzen da euskara ikastea, garaiko izpirituaren parte sentitzeko. Diktadura osteko etorkizuna

## **80. hamarkadako arrakala sakona izan zen eta bere ondorioak oraindik ere nabariak dira**

hobea irudikatzen da euskaldun jendearentzat eta euskara hor txertatzea aurrerakoia eta modernoa da.

Dena ez zen izan, ordea, adostasuna eta auzolana. Eztabaida ideologiko edo praktikoak tarteko, haserreak eta ika-mikak ere pizten ziren maiz. Gainera, belaunaldien arteko gatazka indarrean zegoen, hori gabe ezin da ulertu euskara batua vs. euskalkiak sortu zen eztabaidaren gorria. Hain zuzen belaunaldien arteko etenak oztopatu zuen aurretik egindakoaren transmisioa eta, beraz, orduko gazteak aritu ziren jakin gabe aurretik zer egin zen, nork eta nola egin zuen, zubirik ez zen egon apenas.

Eta, hala ere, azpimarratzekoa da denbora tarte honetan erakutsi zen gaitasuna garabide nagusietan konbergentzia lortzeko.

### **Arrakala: 1975-1995**

Baina eragile euskaltzaleen konbergentziarako gaitasun hori arrakalatzen hasten da Franco

hil ondorengo trantsizio delakoan. Aurretiaz euskalgintzan batera aritutako eragile asko banatu edota zatitu egiten dira, abertzaletasunaren baitako estrategia kontrajarrien eraginez.

Izan ere, 80. hamarkadaren hasieran jartzen da abian Hego Euskal Herriko egungo marko juridikoa. Eta batzuek marko horretan lan egitearen alde egingo dute, eta beste batzuek kontra. Haiak erakunde berrien bitartez egin daitekeena balioetsiko dute, eta hauek herri-mugimenduan jardutea edota erakundeetan kanpotik eragitea. Hortxe hasten da abertzaletasunaren alde bakoitzak euskalgintzaren baitan hegemonia eta lehia sinbolikoa irabazteko borroka. Lehen auzolanean aritutakoak elkarrekin haserretu eta hasten dira euskalgintzaren urak norberaren errotara bildu nahian.

Sasoi honetan sortzen dira Euskal Herrian Euskaraz (EHE-1979), Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB-1983) eta Euskararen Kultur Erakundea (EKE-1985). Eta sasoi berekoak dira EAEko Euskararen Legea (1982) eta Nafarroakoa (1986). Beti ere instituzio berrien alde edo kontra, arrakalaren alde batean edo bestean. Eta euskaltzaleak minoria eta periferia alde bakoitzean, erdigunea eraiki ezinda.

Arrakalarena azpimarratzen dugu sakona izan zelako eta bere ondorioak oraindik ere nabariak direlako gaur egun. Baina, arrakala eta guzti, aurreko hamarkadetan amestutakoak eta egindakoak fruitu bikainak eman zituen 80. hamarkadan: hezkuntzako D eredia, euskaltegi sareak, euskarazko irrati eta telebista publikoak...

Sasoi honetakoak dira euskararen festa handiak. 'Bai euskarari' kanpaina arrakastatsua izan zen mugarrira eta geroztik sortu ziren ikastolen urteroko jaiak, AEKren Korrika eta abar. Ekitaldi kolektibo horietan lortu da euskaltzaletasunaren bilgune moduko bat, lehia politikoaz gaindiko espazio bat.

Eta bi aldeetan egindako lanari esker asko hazi ziren euskararen zenbakiak hezkuntza sisteman, euskaltegietan, hedabideetan, aisialdian... Hemen bizitzeko euskara ikastea ona izango zela sumatu zuen jende askok eta onartu urrats hori ematea. Eta jende horri guztiari zerbitzu emateko espezializazioa eta profesionalizazioa landu beharra sortu zitzaion euskalgintzari, publiko zein sozialari. Gaur egun euskalgintzan diharduten profesionalen arteko ezberdintasun askok -izan ekonomiko edo sinboliko- garaioetan dute iturburua. Eta oraindik askatu gabe dago mataza.

Giro nahasi eta hazkor honetan hasten dira ahaleginak lehia alderdikoietatik aldentzeko eta euskalgintzari estrategia propioa emateko. Lehen tokiko euskara elkarteak 80. hamarkadan sortu ziren eta azkar samar iritsi 20.000 bazkide biltzera.



Funtsean, pentsatzen zen alderdikeria oztopo zela euskaltzaleen arteko aliantza eraikitzeko. Eta euskaltzaleen masa kritiko nagusia abertzalea izanda, bi familia politiko hauen arteko borroka zatiketa eragiten zituela euskalgintzaren baitan, eta abertzale ez ziren euskaltzaleak uxatu. Horregatik, elkarteon lehentasuna zen euskaltzaleak – edonon ari zirela ere- auzolanerako aldarlean jartzea, euskararen erantzukizunak elkartuta. Horrela garatu dira herrietan hainbat baliabide: hedabideak, aisialdia, sentsibilizazioa, kultur eskaintza...

## IRAKURKETA • FASE BERANTIARRA: 1995-2013

Esan dezakegu 90. hamarkadako erdialdetik aurrera beste ziklo bat hasten dela. Euskalgintzaren baitan aurreko fasearen aurkakotasun batzuk lausotzen hasten dira gaurdaino ekarri gaituen aroan, baina beste batzuk sortu dira teknikoagoak. Eta jendartean aldatu egin da euskararekiko konpromisoa adierazteko eta bizitzeko modua, normaltasun-kota batzuk erdietsi direlako kanpo-eragin askoren ondorioz. Bilakaera horretan eragin duten faktoreetan, batzuk dira euskalgintzaz kanpokoak eta besteak barnekoak.

### Kanpo faktoreak

- Mundu zabalean, globalizazioak aldaketa esanguratsuak eragin ditu Mendebalde osoan. Informazioa, ikuspegiak eta aukerak edonorengana iristen dira, eta norbanakoak jasotzen dituen eraginak biderkatu egin dira; komunitateen bizi-indarra ahuldu egin da eta norbanakoaren esparrua indartu. Testuinguru horretan suspertu egin dira portaera indibidualistak, komunitarioen kaltetan, eta joera hau Euskal Herrira ere iritsi da, nahiz eta portaera komunitarioek oraindik indarra duten.
- Gurean, gatazka giroa gogortu egin zen 90. hamarkadan: Lizarra-Garaziko ahaleginak huts egin ondoren ezker abertzalearen ilegalizazioa etorri zen eta muturreko jarrerak indartzea. 'Todo es ETA' giroan euskalgintzaren zati handi batek ere pairatzen ditu ondorioak, nabarmenena Euskaldunon Egunkariaren itxiera. Egoera hori, ordea, asko lasaitu da azken urteotan, ETak jarduera armatua baztertu ondoren.
- Alderdien politikari dagokionean, bizi-bizirik diraute abertzaletasunaren zatiketak eta hegemonia lehiak. Eta dinamika horrek euskararen auzia ere hartu du bere menpe. Euskara eta euskal kultura erakundetu egin dira eta neurri horretan bihurtu dira borroka politikorako esparru. Euskara bera askotan

**Jendartean aldatu egin da euskararekiko konpromisoa adierazteko eta bizitzeko modua, normaltasun-kota batzuk erdietsi direlako kanpo-eragin askoren ondorioz**



erabilia izan da alderdien interesen mesedetan. Eta horrek guztiak ekarri du euskararekiko atxikimendu afektiboa eta legitimazio soziala auzitan jartzea.

- Bestalde, frankismoa eta ondorengo trantsizioa bizi izan ez zuten belaunaldi berriek beste ingurune bat ezagutu dute eta 'garai txarrak' gainditu izanaren pertzepzioa dute; egoki deritzote egindako ibilbideari eta arrunta zaie gaurko egoera. Euskararena ere borroka ideologiko bat da, baina jendartearen zati handi bat beste 'kezka' batzuetan harrapatuta dabil. Esaten da identitate berezituaren garaia dela, baina ikertu gabeko susmoak dio gurean



hainbatentzat ez dela euskara identitate berezitu horren aterpea.

- Azkenik, nazioartean hegemonikoa edo lingua franca izateko lehia gogortu egin da hizkuntza nagusien artean, batez ere txinera lehia sartu denetik. Eta lehia horren eragina nabari da gure artean ere. Alde batetik, gero eta gehiago ikasten direlako ingelesa, alemana edo txinera, derrigorrezko hezkuntzan edota borondatezko esparruan. Eta bestetik, ingelesa hezkuntza sisteman indartzea erabiltzen hasi delako neurri berean euskararen posizioa ahultzeko.

#### Barne faktoreak

- Euskaingintza eraldatuz joan da garaiko beharretara egokitzeko, profesionalizatuz eta espezializatuz. Bilakaera horretan interes-taldeak ugaldtu egin dira eta, jardun-esparrua mugatua izanik eragileen arteko lehia zuzena piztu da eremuz eremu.
- Profesionalizazioari eta egituratzeari esker, jendarteko zenbait erakundek lortu dute instituzioen aldetik aitorten maila bat, baina aldi berean bistaratu dira hainbat aje: eraginkortasuna, marketina eta indar-erlazioa moduko kontzeptuak ez dira kontuan hartzen; ikuspegi mikroak indartu dira makroen kaltetan, koiunturan begirada iltzatuta bisio estrategikoa ahuldu da; zerbitzu ematea nagusitu zaio euskara jendartean sustatzeari eta espezializazioa hobetsi da sinergiak bilatu ordez...

#### Egungo egoera

- Kuantitatiboki hazten jarraitu dugu, baina ohartzen hasita gaude kualitatiboki emaitzak ez direla nahiko genituzkeen bezain onak: euskara jakiteak edota ikasteak ez dakarrela, berez, euskara erabili nahi izatea. Hemen ondo bizitzeko euskara ikasi beharra erlatibizatu egin da; desiragarri izateari ez dio utzi, baina erlaxatu egin da giroa.

Dirua erabiltzen da jendeak euskaraz ikas dezan, zenbait lurraldetan eskatu egiten da euskara-gaitasuna egiaztatzea gero eta zerbitzu publiko gehiagotan lana egin ahal izateko; baina gero, praktikan, ez da ohiko lan-hizkuntza bihurtzeko plangintza eraginkorrik abiarazten ia inon. Ezagutza lantzen da, baina motibaziotik eta erabileratik aldentuta kasu askotan.

- Euskararen gizarte-mugimenduei dagokienean, eraldatze eta gogoeta-prozesu ugari gertatu da azken urteotan. 1996an sortu zen Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak hiru urteko gogoeta-prozesua burutu du eta Euskaltzaleen



**Kuantitatiboki hazten jarraitu dugu, baina ohartzen hasita gaude kualitatiboki emaitzak ez direla nahiko genituzkeen bezain onak. Hemen ondo bizitzeko euskara ikasi beharra erlatibizatu egin da**

Topagunea bilakatu da. 1997an Euskararen Unibertsoa izeneko Jardunaldiak egin ziren eta, EKBk lekukoa utzita, Euskararen Gizarte-Erakundearen Kontseilua eratu zen, euskalgintza kohesionatu eta beronen jardun estrategikoa gidatu asmoz. Aurten amaitu du Kontseiluak azken gogoeta. Behin labea gori, 2000. urtean sortu zen Soziolinguistika Klusterra, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketa, zabalpena eta aplikazioa bultzatzeko, eta honek ere amaitu berri du hausnarketa estrategikoa. Eta hedabideen sektorean berriki gertatu dira eraldatze handiak: Tokikom, Hekimen... Uste osoa dago aro bat amaitu dela eta beste bat hasten ari, berrikasi egin behar dugula egindakoetatik eta berrikusi etorkizuna.

jardunbideei dagokienez, bestalde, Nafarroan eta Iparraldean, tamalez, urteen joan-etorriak ez du baikortasunerako zantzu handirik ematen. Bertako agintari politiko gehientsuenek ez dute aintzat hartu nahi bertako berezko hizkuntza, abertzaleei talibanismoa leporatuta edota aldekotasan epela defendatuz.

EAEko administrazioan, bere aldetik, Eusko Jaurlaritza lehen aldiz egon da EAJ ez den alderdi baten esku eta une honetan hiru Diputatu Nagusiak alderdi ezberdinetakoak dira, lehen aldiz orain arte. Horrek guztiak aukerak eta mehatxuak aldatu egin ditu, joko-zelaia aldatzen ari da.

- Euskal Herriaren baitako administrazioen



## Uste osoa dago aro bat amaitu dela eta beste bat hasten ari, berrikasi egin behar dugula egindakoetatik eta berrikusi etorkizuna

### IRAKURKETA • AZKEN TESIAK

Argiak eta itzalak ikus daitezke euskarak azken hamarkadetan egin duen ibilbidean, lorpenak eta ajeak. Baina balorazio orokor bat egiterakoan, ez dago zalantzarik: euskararen egoerak nabarmen egin du hobera azken mende erdian.

Hori horrela izanik, itzaletan eta ajeetan daude aurrera begira hobetzekoak eta horiei erreparatu diegu bereziki. Lau ardatzetan bildu ditugu eraldatu beharrekoak.

1. **KOMUNITATEA.** Euskararen gizarte-mugimendu anitzari falta izan zaio sinergiak baliatzea eta tokiko zein Euskal Herriko diskurtso-praktika beregaina osatzea, edonolako herritarrak eta eragile politiko-instituzionalak bere tesietara biltzeko.

2. **IDEOLOGIA.** Hizkuntz-ideologia sendo baten faltan, ideologia politikoekin uztartu da euskalgintza, nagusiki abertzaleekin. Baina abertzaletasunak ez du elikatu aliantza euskaltzalea; aitzitik, lehia abertzalea gatazka eragile izan da euskalgintzan eta, aldi berean, uxatu egin ditu herritar ez abertzaleak.
3. **JARDUERA.** Profesionalizatuta ere, euskara normalizatzeko bidean arrakasta erlatiboak lortu dira kulturgintzan, ezagutzan, egintza kolektiboan eta mobilizazioan; apenas egon den beste hizkuntzekin lehiari nagusitzeko moduko arrakasta erabatekorik.
4. **HEGEMONIA.** Euskalgintzak galdu egin du erdigunea, euskarak bizitza publikoan izan beharreko tokiaren lehiari. Ondorioz, hegemoniko diren erdaren arauak, logikak eta aukerak sendotu dira, euskararen kaltetan.

## ONDORIOAK AURRERA BEGIRA

Iraganetik berrikasi nahi izan dugu etorkizuna berrikusteko. Ariketa hori eginda eta aurrera begira jarrita ondoko zutabeak ikusten dizkiogu beharrezko euskararen garapen sozialari, normalizazioaren bidean.

# Euskararen normalizazioak behar du hiztun komunitate emantzipatu bat

## 1. HIZTUN KOMUNITATE EMANTZIPATUA

Euskaltzalearen ezaugarria da hizkuntzarekiko konpromisoa. Konpromiso hori, ordea, ez da soilik bakarkakoa; neurri handian partekatua da gainontzeko euskaltzaleekin. Hain zuzen partekatzen den konpromiso-esparru horri deitzen diogu euskaltzalearen zoru komuna, eta bere gainean eraikitzen da hiztun komunitatea.

Euskararekiko interes komuna hedatuko bada lehenik indartu egin behar da, hiztun komunitatearen baitan komuna dena azpimarratu, barneratu eta blindatu. Normalizazioaren gainean berezkoa eta zilegi da ikuspegi ezberdinak izatea, baliabideak, babesak edo erritmoak direla eta. Kontua da ezberdintasun horiek baliabideak direla, esaterako, konfrontazio politikoan aukera baten mesederako edo beste baten kalterako. Eta kasu honetan ezberdintasunak areagotu egiten dira, sakondu.

Euskararen normalizazioak behar du hiztun komunitate emantzipatu bat, euskaltzalearen jarriko duena bestelako interesen gainetik; horrela eragingo luke hizkuntzaren inguruko ezberdintasunak integra daitezzen eta lankidetzan indartu dadin.

## 2. EPE LUZEKO PLANGINTZA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

Euskaltzalearen zoru komuna sendotzeko ezinbestekoa da ikuspegiak adosten joatea, eta hor zientziak laguntasun handia eman lezake. Duela 50 urte ez bezala, gaur egun zientziaren adar ugariatik ekar daitezke metodoak eta tresnak hizkuntza normalizaziora. Eta normalizazio prozesua zenbat eta teknikoagoa izan, orduan eta adostuagoa izan daiteke.

Normalizazioaren hurrengo zikloak hain zuzen hori izan beharko luke zutabe nagusietako bat: gatazka murriztuko eta mugatuko duen plangintza teknikoak.

Demagun hiztun komunitateak adosten duela epe luzeko helburu bat, 'amets doitu' deitu izan duguna, hau da, utopiatik izango duena eta aldi berean egingarri izango dena. Behin hori eginda, zientziaren laguntzarekin zehaztuko lirake helburura iristeko estrategiak, aldagaiak, baliabideak, erritmoak, neurgailuak... Eta horren gainean landuko lirake eragile ezberdinen funtzioak eta guztien arteko osagarritasuna; eta planaren kudeaketa, gidaritza edo erabakiguneak; hau da, prozesua burura eramateko antolamendua eta funtzionamendua.

Testuinguru honetan kokatzen da hizkuntza politika, hau da, herri erakundeek berriaz egin behar dutena normalizazio prozesuan. Testuingurua adostuta, egon daitezke aldeak segun eta nork gobernatzen duen, baina ez epe luzeko plangintzan jartzen duen zoruaren azpitik.





### 3. LEGE-BABESA, BALIABIDEAK ETA ERREFERENTZIAK

Normalizazioak bi hanka ditu, biak ezinbestekoak: borondatea eta bitartekoak. Egia da borondatearekin bakarrik lortu izan duela euskarak irautea, bitartekoak bere aurka jarri direnean, duela 50 urteko berpizkundeak erakusten duen bezala. Eta jakina da bitartekoak ez direla aski hizkuntza bat berpizteko komunitatearen borondaterik ez dagoenean, badira horren adibideak.

Borondateak, ordea, baditu bere mugak eta horiek gainditzeko beharrezkoa ditu bitartekoak, legezkoak eta ekonomikoak. Lege-babesa ezinbestekoa da eskubide terminotan hitz egiteko, berdintasuna, justizia eta errespetua –eta beraz bizikidetzan- nahi badira. Eta horrekin batera behar dira baliabide ekonomikoak, berez ez dira egoerak normalizatzen. Euskararen egoera minorizatua normalduko bada, igurtzian dituen hizkuntzak baino areago hedatu eta sustatu behar da, jendeak ikas eta erabil dezan. Lege eta baliabideetan ere zoru bat adostu eta ezarri behar da, txandatzeko politikoak edo zurrumbilo ekonomikoek ez dezaten epe luzeko prozesua aldiro baldintzatu.

Hirugarren faktorea ere –erreferentziena- oso garrantzitsua da. Euskarak inguruan dituen hizkuntzak hiztun askokoak dira eta, beraz, alde dute inertzia. Berez dituzte indartsuak komunikabideak eta kultur ekoizpena, berez hedatzen dira haien erreferentziak. Estatu makinaria eta baliabide guztiak beraien aldeko hizkuntza politiken alde daude aktibatuta. Euskarak berariaz egin behar du lan hori, erreferente badirenak euskarara ekarri eta euskaraz ari direnak erreferente bihurtu. Euskarak, azpi kategoria gisa esleitutako baliabideekin egin du orain arteko bidea eta erdigunean kokatzeko, unibertso gisa kontsideratua izateko premian dago. Eta lan honetan ezinbestekoa da indar- eta itzal-posizioetan daudenen inplikazioa.

### 4. EGITURA ETA AUTORITATEA

Gizarteko euskalgintza egituratuta dago. Gehiegi ere bai, agian, nondik begiratzen den. Erakunde

asko dago eta profesionalizazio maila handia da baina zailtasunak ditu dispersioa gainditu eta norabide berean koordinatuta lan egiteko eta, aldi berean, dependentzia handia dute aurrekontu publikoekiko.

Bestalde, euskalgintza sozialak ez du lortu hiztun komunitate emantzipatua indartzerik eta hura ordezkatzuz erabakigune instituzionaletan behar adina eragiterik. Beste horrenbeste esan daiteke

**Lege-babesa ezinbestekoa da eskubide terminotan hitz egiteko, berdintasuna, justizia eta errespetua - eta beraz, bizikidetzan - nahi badira**

euskalgintza instituzionalaz, zuzenean kontrolatzen dituen esparruetara mugatu da, eta bere eragina txikia da gizarte mugimenduan, diru-laguntza eta ika-miketarik harago.

Eta behar da. Behar da gizartean euskaltzaleen egituratze ireki bat, edozein euskaltzale eroso egoteko modukoa, baita instituzioetan daudenak ere. Behar da eragile ezberdinen arteko funtzio banaketa argia, sinergiak baliatu eta osagarritasunak indartze aldera. Behar dira langune eta erabakigune partekatutako euskalgintza sozialaren eta instituzionalaren artean, ondo uztartzeko erakunde ahalmena eta gizartearen kemena, optimizaziora bidean. Eta behar da denek onartutako autoritate bat ebatziko duena noiz, zer eta nola, adostutako plangintzaren arabera; Euskaltzaindiak corpusean egiten duen funtzioa estatusen egingo lukeena.



**Eragile ezberdinen arteko funtzio banaketa argia behar da, sinergiak baliatu eta osagarritasunak indartze aldera**

## 5. DISKURTSO MULTZO KOHERENTEA

Bere hizkuntza normaldu nahi duela azaltzeko hiztun komunitateak diskurtsoa eraikitzen du eta diskurtso horren kalitateak eragin zuzena du – aldekoa edo kontrakoa- normalizazio prozesuan. Gai honen inguruan ekarpen mamitsua izan da gure taldekide Iñaki Martinez de Lunaren lana **Euskararen framing berriaz**. BAT soziolinguistika aldizkaria 86. alea, 2013. (Laburpen bat Topaberri honen 15. orrialdean)

Eraikitzen dugun diskurtsoaren kalitateak eragin zuzena du normalizazio prozesuan

Hala ere, kontuan izanik diskurtso horren hartzaile diren herritar multzo eta azpi-multzo guztiak, diskurtso bakarraz baino diskurtso multzo batez hitz egin beharko genuke, edo gutxienez erregistro ezberdinak izango lituzkeen diskurtso zabal batez.

Erregistro batzuk aipa genitzake:

- **Bizikidetzarena.** Denetan zabalena da, norik ez du bizikidetzara desio?
- **Identitatearena.** Euskara da euskaldun egiten gaituena.
- **Berdintasunarena.** Hiztun ezberdinak, eskubide berdinak.
- **Aniztasunarena.** Hizkuntzen osasunak adierazten du gizartearena.
- **Erantzukizunarena.** Denoi dagokigu jaso duguna

geroratzea.

- **Justiziarena.** Kendu egin ziguten, bidezkoa da orain itzultzea.

- **Errespetuarena.** Inork ez inor zapaldu, bakoitzak berea.

Oso garrantzitsua litzateke errejistro hauetako bakoitza ondo garatzea eta euskaltzale bakoitzak barneratzea, modu malguan eta eraginkorrean erabiltzeko egoera eta solaskide bakoitzari ondoen egokitzen zaiona.

## 6. ARNASGUNE POLITIKOA ALDERDIEN ALDETIK

Aro historiko honetarako alderdiei eskatzen diegu ariketa politiko sakona: blindatu dezagun euskararen prozesua. Atera dezagun interes elektoral eta estrategia-diseinu alderdikoietatik. Baztertu dezagun tentazio logikoa: euskararen aldekotasuna erabiltzea ‘indarrak metatzeko’, ‘diferentzia markatzeko’, norbere nitxo elektorala elikatzeke, ‘bestea desgastatzeko’, azken finean estrategia politiko-elektoralerako.

Euskara estrategia eta enfrentamendu politiko-elektoraletik ateratzea eta herri honen biziraupenerako eta garapenerako giltzarria den gure hizkuntzaren gaia blindatzea planteatzera gatoz. Arnasgune politiko eskatzen dugu euskararentzat, euskara arma politiko moduan ez erabiltzea eta hizkuntza babesteko eta normalizatzeko neurriak adostea.

Uste dugu euskararen eremuan ‘zoru komuna’ zabaldu eta eraiki daitekeela, bai gizarte mailan eta bai maila politikoan, non urte hauetako guztietako desberdintasunak eta diferentziak beste maila batera eraman eta beste era batera eztabaidatu daitezkeen. Egingarritzat eta ezinbestekotzat jotzen dugu, gainera, euskara alderdi zentral batzuen artean, beren arteko gatazka politiko publikotik aterako duten oinarrizko adostasunetara heltzea.

Uste dugu euskararen eremuan “zoru komuna” zabaldu eta eraiki daitekeela, bai gizarte mailan eta bai maila politikoan

‘Zoru komun’ horrek hainbat oinarri beharko ditu: elkarrekiko aitortza abiapuntutzat hartzea, alderdien artekoa, hala nola, gizarte eragile eta erakundeena; euskalgintza ez etiketatzea eta ez instrumentalizatzea; botere-kontrabotere enfrontamendu dinamika gainditu eta elkarlan instituzional-sozialaren parametroetara pasatzea; hizkuntza mailako gizarte-borondatearekin batera pauso estrategiko kementsuak ematea.

Guzti horrek, ordea, aurretiko pauso klabe bat eskatzen du: familia politikoetako buruzagien arteko akordio sakona, gai hau blindatzeko.

## 7. MOTIBAZIOA ETA BIZI-INDARRA

Esandako guztiak garrantzitsuak izanik, zazpigarren hau litzateke egosi nahi den ogiaren legamia: hiztun komunitatearen motibazioa, hizkuntzari bizi-indarra emango

diona. Egin diren urrats asko ezin dira ulertu zutabe hau kontuan hartu gabe, bereziki beste faktore gehienak aurka izan direnean.

Bizi dugun ziklo-aldaketa giroan, adierazle batzuk diote motibazioa eta bizi-indarra goian daudela –Interneten euskarak duen tokiak, esaterako–; aldiz, beste batzuk erakusten dute goia jo dela eta jauzi berriak egiteko sabai batzuk apurtu beharra dagoela.

Gure ustez, aurreko beste sei zutabeetan euskaltzaleok batera jokatzeko bidea hartuko bagenu, zazpigarren honetan sekulako jauzia egingo litzateke. Batzen gaituena gehiago delako, sinetsita gaude euskaltzaleok lankidetzan aritzeak ilusio eta energia eztanda handi bat ekarriko duela; eta erregai hori behar dugula txanpa indartsu eta luze bati ekiteko, euskararen mesedetan.

**Euskaltzaleok lankidetzan aritzeak ilusio eta energia eztanda handi bat ekarriko du; eta erregai hori behar dugu txanpa indartsu eta luze bati ekiteko, euskararen mesedetan**



# Hizkuntza-diskurtsoaren gaineko gogoeta

## Teoria apur bat

Aurreko atalean iragan hurbilaren irakurketa egin dugu eta hurrengoan aurrera begirako ondorioak atera nahi genituzke. Tartean, ordea, egoki deritzogu osagai teoriko batzuk aipatzeari, horietan oinarritzen baita gure analisia. Atal hau irakurtzea ez da ezinbestekoa ondorioak ulertzeko, baina gaude hemen esandakoak josi egiten dituela beste bi atalak.

Izan ere, bitartekoak eta lanerako norabideak argitzeko komeni zaigu ideien logika bat partekatzea. Hau da, euskara normalizatu, biziberritu edo arnasberritu nahi horretan zeintzuk diren partekatzen ditugun ideiak.

Gu ariko gara euskara elkarteak abiarazteko giltzarri izan ziren ideien logikatik, J. M. Sanchez Carrion 'Txepetx' en formulazioak oraingoan ere baliagarri izango zaizkigulakoan.

## Ikuspegia

Gogoetagaiak hiru planotara ekarriko ditugu beti, osagarritasuna erdieste aldera eta tratatuta ez geratzeko ikuspegi partzial-murriztuetan. Hauek dira hiru planoak:

- **Beharrarena** (hiztunaren izateko gogoeta): Ni neu izateko, gu geu izateko, euskara behar dugu. "Lehenik eta behin bertako elean hiztuna, gero eleaniztuna" (Jon Sarasua). Eusten eta ereiten jarraitzea dagokigu, biak!
- **Erantzukizunarena** (hizkuntza-komunitatearen izateko gogoeta): Euskaldungoa hazten joatea eta behar bezala antolatzea da, oro har, prozesuaren eta emaitzaren zimentarri nagusia. Erantzukizun hori ezin zaie delegatu ordezkari politikoei, zeinahi dela ere agintean dagoena.
- **Helburuarena** (hizkuntzaren estatusa bere komunitatearen berezko lurraldean): Guretzat nahi dugun hori ona da, berez, gizateria osoarentzat. Aniztasuna zaintzea eta garatzea da, berez, hizkuntza ekologiarren izateko arrazoia.

Hiru axioma horiek aintzat hartuta, zein da normalizaziorantz joateko jokoan dauden aldagaien hurrenkera? Zer da zertarako bitartekoa? Hiztunaren, hizkuntza-komunitatearen eta lurraldearen planoak zein nola elkarlotzen dira estrategia osagarrian?

Ondoko orrian agertzen den diagramak balio ahal digu, orain eta hemen, ideiak sailkatzen joateko egokiera adostuan:

Haustura puntutik gora, hauek dira fase bakoitzaren ezaugarriak:

- **Espazio sinbolikoaren nuklearizazioa**: berriro ere euskalgintzako aitzindarien belaunaldia osatzea da gakoa.
- **Hizkuntza komunitatearen konpaktazioa**: hiztun komunitatea berregituratu





egiten da, AB eta BA hiztunak biltzen dira hizkuntza prestigioaren eta gaitasun politikoaren ordezkari gisa

- **Hiztun tipoen optimizazioa:** abiatzen garen gaitasunetik abiatuta, hiztun guztiok daukagu optimizatzen jarraitzeko modua. Optimizatzeak berdin dagozkie motibazioari, ezagutzari edota erabilerari.
- **Babes legala:** botere linguistikoaren birbanaketa, botere politikoak botere linguistikoari erantzuten dio.
- **Funtzioak berreskuratzea:** hiztun taldeak ugaritu egiten dira, talde bakoitzak bere funtzioa ulertzen du eta bere gain hartzen.
- **Gune hegemonikoak (arnasguneak):** hizkuntza gutxituak berea eta beste inorena ez den lurraldea edo habitat linguistikoa behar du, bere garapen osoa lortu ahal izateko eta bere komunitatea hizkuntza horretan osa dadin.
- **Autokonfiantza/Sormen intelektuala:** hizkuntz komunitate osoak barneratu behar du egoera minorizatuan egon den bere hizkuntzak gaitasun osoa eta ahalmen guztiak dituela bere beharrei erantzuteko.

## Eragilea

Ibilbide horretan urratsak eragiteko helburuarekin antolatu ohi da euskararen gizarte mugimendua.

Gizarte mugimenduen eginkizuna bi ardatzetan irudika daiteke. Lehenik eta behin, jendartean sendotu eta hedatu behar dute aldaketarako gogoia, haien helburuaren norabidean. Eta gero, sortzen den indar hori baliatu behar dute erakundeengan eragiteko eta aldaketaren kontra daudenen erresistentziak gainditzeko.

Bi ardatz horietan eraginkor izateko, ondo pentsatu behar dira diskurtsoaren eta ekintza kolektiboaren logikak. Horretan asmatzean duen neurrian, gizarte mugimenduak ahulduko du eragile atzerakoa (status quo) eta gizartearen ilusioa/grina berpiztu. Beraz, ipar hori motibatu eta gerturatzan duten diskurtsoak eta mobilizazio-tresnak dira egokiak.

Euskararen aldeko mugimendu sozialen kasuan, helburua da normalizatuta ez dagoen komunitateari laguntzea hizkuntza berreskuratzen, ondoko eremuetan:

- **Pertsonala** > herritar bakoitzak gauza izan behar du bere premia kultural eta profesionaletan euskara egoki erabiltzeko.
- **Soziala** > euskalduna euskaraz bizitzeko moduan egoteraino zabaldu behar da euskararen erabilera soziala.
- **Instituzionala** > erakunde publikoen lan- eta zerbitzu-hizkuntza euskara izan dadin.
- **Kulturala** > euskarazko produkzio eta eskaintza kulturala unibertsala eta askia behar da hitzuna asetzeko.

Errealitatean, euskararen aldeko gizarte-ekimena, baliabideei eta antolatzeke moduei dagokienean, hiru multzo handitan sailka genezake:

1. **Erakunde hezitzaile-tekniko-enpresarialak:** Euskalgintza alorreko enpresa gisa eratuta aritzen direnak, non langileek beren lanbidea eta irabazpidea ateratzen duten: irakaskuntza, euskararen irakaskuntza, komunikabideak eta ikus-entzunezkoak, zerbitzu zientifiko eta sozialak, estandarizazio-lanetan dihardutenak, euskaraz diharduen hainbat argitaletxe...

2. **Erakunde profesional-gremialak:** Lanbide zehatzetan dihardutenak, beren interes profesionalak, laboralak eta gremialak babesteko sortuak: Idazleen elkarteak, Itzultzaileen elkarteak, Irakasleen elkarteak, Euskal kazetarien elkarteak...

3. **Herri erakunde militanteak:** Herritarren militantzian oinarriturik, euskararen eta euskal kulturaren aldeko defentsa, gizarte kontzientziaztea, eta euskararen erabilera zabaltzea bilatzen dutenak; erakunde publikoen eta bestelako aurrean horren aldarrikapena egiteko eta bestelako eragin soziala izateko.

Irakurketa egiterakoan aipatu dugu euskararen aldeko gizarte mugimenduari nabari zaizkion ajeak, diskurtsoari eta praktika beregainari begira. Eta nola erakunde ezberdinen artean ez den sinerjiarik bilatzen erdigune indartsu bat osatzeko. Funtsezko baldintza bat behar litzateke horretarako: erakundeen arteko funtzio banaketa, egiteko nagusiaren azpi-egitekoen arabera.

Funtzioen banaketa argi baten faltan, erakundeak jardun daitezke elkarri zapaltzen erakargarrien diren eginkizunetan edota 'interes' gutxienezkoak jare eginda. Lehia osasungarria da baldintza egokiak ematen direnean, baina esparru txikian ari direnen arteko lehia hilkorra ere izan daiteke. Euskararen aldeko erakundeak eraginkorrak lirateke egungo mugen baitan lehian jardunda baino muga horiek gainditzeko lankidetzan saiatuko balira. Bakoitza pastelaren zati handiago baten bila barik, denak pastel handiago bat lortzeko lankidetzan, alegia.

Gure ustez, erakunde horiek aztertu egin beharko lukete –bakoitzak bere ikuspegiaren eta lanerako norabidearen arabera- zein arlotan aritu nahi duten beren hautazko eragin-eremuan:

- Norabide politiko eta instituzionala: normalkuntzan eraginarazi
- Norabide antropologikoa: euskara eta hiztun-taldeekin aritu
- Norabide soziologiko eta dialektikoa: berreskurapenerako koordinazioa eta planifikazioa adostu eta gauzatu

Behin bakoitzaren tokia eta funtzioak ondo argituta –eta guztien arteko osagarritasuna- errazagoa litzateke sinerjiak bilatzea eta hizkuntza komunitatearen erdigune indartsua osatzea.

# Euskararentzako babes zabaldu beharraz

Euskarak duen *Framing Berri* baten premia asetzeko proposamenaren<sup>1</sup> asmoa da euskararen aldeko planteamenduari oinarri diskurtsibo zabalago bat eskaintzea, horren laguntzaz giza-talde berriak hizkuntza hori suspertzera bil daitezen.

Hizkuntza normalizatua, erabiltzen dena da, baina euskararen egoera aztertu duten azken ikerlanek erakutsi digutena ez dator guztiz bat xede horrekin. Ezagutza hedatu bada EAEn, batez ere, erabilera ez da neurri berean hazi, ezta hurrik eman ere. Hortaz, aurrerapausoak eman izanagatik, euskara normaltzea lekutan dugu oraindik eta, gainera, ahalegin horretan tratatuta omen gaude.

Balantze gazi-gozo hori kezagarria bezain ulergarria da, aldi berean. Izan ere, esku-hartze plan bat –edozein plan diseinatzerakoan– ameskeria litzateke lehenbiziko ahaleginean bete betean asmatuko dugula pentsatzea. Planifikatutakoari segida logiko bat aplikatu behar zaio beti: emaitzak balioztatu, diagnostiko horretaz hausnartu, zer-nola hobetzea pentsatu, eta, azkenik, neurri berriak indarrean jarri. Eskema hori izan da, hain zuzen ere, *Framing Berriaren* proposamena egitera bultzatu gaituena.

Lan honen muina zedarritzeko baliatu izan dugun hurbilpena komunikazio-teoriarena da<sup>2</sup>, besteak beste *Framing* terminoa: “*Framing*: errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatzen zituzten egitura kognitiboak” (*Goffman*, 1974). Ikuspegi horretatik sistematikoki miatu dira euskal iritzi publikoak euskararen inguruan (izan) dituen ideia gakoak, arestian esandako egoera galgatuaren zergatia ulertzeko asmoz.

Euskararen inguruko gizarte iritziak aintzat hartuz, honako hau da azken hamarkadetan izandako bilakaeraz osatu den kontakizun edo errelatoaren laburpena:

- a) Iragan den mendeko 70-80ko hamarkadetan, trantsizio politikoaren garaian, euskararen inguruko lilura eta aldekotasuna agerikoak ziren Hego Euskal Herriko gizarte sektore zabaletan.
- b) Ondoren, politikarekin nahastu da euskara, Moreno Cabrerak hain ongi azaldu duen nazionalismo linguistiko eskemaren leloa betez: Estatu bat = Nazio Bat = Hizkuntza Bat. Horrekin bat eginez, euskal abertzaletasunak *Framing*



**Posible ote da euskararen etorkizun duina  
ziurtatzea euskal gizartearen babes zabalik  
gabe?**

*Aldarrikatzaile* deitu dugun diskurtsoaren bidez irmo defendatu du euskara, gure zinezko hizkuntza bakar gisa. Horren aurrean gizarte sektore batzuk batez ere, identifikazio espainiardunak mesfidati agertu eta euskararen aldeko ahalegin zein neurri asko inposatu eta diskriminatzailetzat jo ditu. Aldi berean, norbanakoaren hizkuntza-askatasunaren gaztelania erabiltzearen bandera altxatu dute; iritzi-korrante hau *Framing Uzkur* izendatu dugu.

c) Giro horretan, *Framing Aldarrikatzaileak* euskaldunen hizkuntza-eskubideak mahai-gaineratu ditu, baina *Framing Uzkurak* arrazoibide horren legitimotasuna higatu du, halakoak askotan taliban-keriatzat joaz. Horren ondorioz, gatazka-kutsua atxiki zaie euskara normaltzeko asmoz abian jarri diren politika, plan eta ekimen batzuei.

d) Gauzak horrela, euskararekiko aldeotasuna ahuldu da herritar zintzo askorengan eta *Framing Aldarrikatzaileak* urte batzuk lehenago zituen zilegitasuna eta eragina lausotuak geratu dira hainbat gizarte eremuren begien aurrean. Horrek eraginda, nora-eza jabetu da hainbat giza-talde eta herritar euskaltzalez.

e) *Framing Aldarrikatzailea* eta *Framing Uzkurra*, biak ala biak, analisirako trikimailu edo konstruktio artifizialak izanik, euskal gizartearen gehiengoak ez du bete-betean batekin edo bestearekin bat egin, baina joera handiagoa adierazi du baterantz edo besterantz garaian garaikorantz lerratzeko. Horrela, duela hamarkada batzuk gizarte giro orokorra *Framing Aldarrikatzailearen* aldekoagoa bazen, gaur egun *Framing Uzkuraren* ideiak eremu zati bat jan dio aurrekoari.

Diagnostiko horretatik abiatuz, galdera batzuk egin beharko genizkioke geure buruari. Posible ote da euskararen etorkizun duina ziurtatzea euskal gizartearen babes zabalik gabe? Bere eragina murriztua ikusi duen *Framing Aldarrikatzailea* nahikoa ote da euskarari etorkizun oparoa eskaintzeko? Ezezkotan, hauxe litzateke gakoa: nola berreskuratu euskararentzat gizarte aldeotasuna eta babes zabala? Aukera bat izan daiteke euskararen *Framing* delakoan eragitea, bere "hautematea eta irudikapena gidatzen dituzten egitura kognitiboak" birplanteatzeko.

Asmo horrekin abiatu da *Framing Berriaren* proposamena, ustez, une egokian. Izan ere, proposamen horren gainean hausnartzeari ekin diote Maria-Jose Azurmendi, Patxi Baztarrika, Xabier Erize eta Paul Bilbao<sup>3</sup>, lau-lauok, euskalgintzak duen berrikuntzaren premia azpimarratu dute. *Framing Berria* egokia izan ala ez izan, ba omen da garaiz egina.

Zertan datza, bada, *Framing Berria*? Aniztasunaren balioa bere eginez, Hizkuntzen Ekologia/ Hizkuntzen Iraunkortasuna jartzen ditu hizkuntza-diskurtsoaren zutabe. Ikuspegi horiek oihartzun zabala lortu dute nazioarte mailan, eta hizkuntza gutxituak babesteko kezka duten giroetan arrakastatsu ari da izaten. Hemengo hizkuntza-egoerara ekarrita lagungarri gerta dakiguke *Framing Aldarrikatzaile* eta *Framing Uzkuraren* arteko lehia eta talkaren arriskua bideratzeko. Horretarako, malgutasuna eta egokitze ahalegina eskatzen die bi diskurtso horiei, aro berri batera jauzi egin ahal izateko.

Dena den, **Framing Berria** ez dator *Framing Aldarrikatzaileari* eta *Framing Uzkurari* lekua kentzera eta horiek ordezkatzera, egungo bi *framing* edo interpretazio horiei ekarpen baliotsuak aitortzen dizkie-eta. Zehatzago, *Framing Aldarrikatzaileak* egiten duen Euskal



**Zertan datza Framing Berria? Aniztasunaren balioa bere eginez, Hizkuntzen Ekologia / Hizkuntzen Iraunkortasuna jartzen ditu hizkuntza-diskurtsoaren zutabe**



Herrikoa baino ez den hizkuntzaren defentsa aintzat hartzekoa da; areago, jarrera horrek gizarte osora hedatzea merezi du. Bestalde, *Framing Uzkurak* azpimarratzen duen hizkuntza-hautua egiteko norbanakoaren askatasunari ere balio garrantzitsu deritzo.

Hizkuntzen Ekologia/Iraunkortasunaren balioekin eta *Framing Aldarrikatzailearen* zein *Framing Uzkuraren* bertsio moldatuekin batera, beste ikuspegi berritua ere eman nahi zaio euskarari. Gizarte aldaketek dakarten gaurkotu beharra jorratu zuen jada Kataluniako *Plataforma per la Llengua*-k, hizkuntzaren aldeko diskurtsoa berritzeko ahaleginetan. Globalizazioa, etorkin berriak edota post-modernismoa direla kasu batzuk baino ez aipatzearren, egungo gizartea ez da trantsizio politikoaren garaian zegoen bera. Hortaz, ezinbesteko jotzen da hizkuntzaren gaineko interpretazioak ere egoera berritara egokitzea. Horrekin osatuko litzateke oinarri diskurtsibo berriaren osagaiak.

Arestian esan bezala, Azurmendi, Erize, Baztarrika eta Bilbaoren aburuz, diskurtso euskaltzalea berritu beharra egon badago. Adostasun hori garrantzitsua izanagatik, ezin zaie muzin egin hartu beharreko norabideez ager daitezkeen zalantzei eta iritzi kontrajarriari. Euskararen normalkuntza beste estadio batera eramateko, ikuspuntu guztiak dira zilegi eta denak jar daitezke –jarri beharko lirateke– eztabaidagai.

Esandako lau egileek, adibidez, euskararen diskurtsoa berritzeko ahaleginetan gomendio ezberdinak egiten dituzte. Beren ekarpen interesgarrien zantzu xume batzuk baino ez aipatzearren: Azurmendik dio diziplinartekotasunetik abiatutako ezagutza soziolinguistikoko aberatsago bat oinarri egokia litzatekeela euskararen aldeko ahaleginetan egokiago jardun ahal izateko; Bilbao eta Erizek, nork bere aldetik, euskararen normalkuntzak gizarte aldaketa eskatzen duela gogorarazi digute; Bilbaok dio orain badaudela aukera egokiak apustu sendo eta ausarta egiteko; aldaketaren aurrean bidegurutzeko estrategiko baten aurrean kokatzen gaitu Erizek: merkatu osora hedatzekoa ala euskara gizarte segmentu batean fokalizatzea; hartuko den strategiari dimentsio etikoa erantsiko lioke Baztarrikak, giza-talde bat bere onarpenik gabe jokabide linguistikoko batzuetara behartzea ezinezkotzat joaz; eta abar.

Beste zalantza bat –ez, nolana hikoia– aipatuko genuke guk geuk: oihanaren legea nagusi den munduan, *Framing Berriaren* proposamena onkeria hutsa izateko duen arriskuarena. Horren aurrean, erantzuna lotuta egongo da *Bestelako (Euskal) Mundu Bat* posible dela leloari bakoitzak ematen dion sinesgarritasun mailari.

Artikulu hau estreinekoz *IVAP aldizkarian* argitaratu zen (82. alea, 2013ko urria)

<sup>1</sup> *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 86 [2013-1] (13-83, 149-157)

<sup>2</sup> *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 76 [2010-3] (53-67)

<sup>3</sup> *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 86 [2013-1] (85-146)

**Euskararen normalkuntza  
beste estadio batera  
eramateko, ikuspuntu  
guztiak dira zilegi eta  
denak jar daitezke  
- jarri beharko lirateke -  
eztabaidagai**

# Topalabea, mugimenduarentzako ideien sukaldea

*“Topaguneak soziolinguistikan autoritate diren lagunen taldea behar du” (XXI. mendeko euskaldunon elkarteak, Oinarriparrak; 2011; 32. orr.).*

*“Euskaldunon elkarteen mugimenduaren lagunen taldea osatuko genuke diskurtso sortzaile izan dadin, mugimenduaren norabidea marka dezan, hizkuntz politika ofizialen irakurketa egin dezan eta mugimenduaren ahotsaren errepresentazioa izan dadin.” (XXI. mendeko euskaldunon elkarteak, Oinarriparrak; 2011; 33. orr)*

2011a urteko otsailean egindako lehen Kongresuaren ondorioetan jasotako aipuak dira aurrekoak. Euskaltzaleen Topagunearen erronka berrituetako bat izan zen ikuspegia eta diskurtsoa lantzea eta horretarako behar beharrezkoa zen gogoetarako talde hori antolatzea. Kongresuan dago, beraz, *Topalabea taldearen sorreraren* ernamuina.

kezkak eta mugimendu modura jorra daitezkeen lan-ildoak egindako gogoetekin uztartzen. Taldera batu diren lagunek bi ezaugarri dituzte: soziolinguistikaren arloan badute zeresana, beraien ibilbideagatik, eta euskaltzaleen mugimenduko kide edo hurbileko pertsonak dira. Hasieratik talde trinkoa sortu zen, orain arte bederatzik kidek osatuta, eta 2015 urtean Ibon Usarralde ere sartu da. Hamar kideko taldea da, beraz, gaur egun.

*Topalabearen* lehen urteetako dinamikak balio izan du normalizazioaren gaineko ikuspegiak partekatzeko, komunitatearentzako etorkizuneko norabidean giltzarri izan daitezkeen gakoak identifikatzeko eta gako horietan eragiten hasteko estrategiak irudikatzeko. Gogoeta horiek izan dute Euskaltzaleen Topaguneak azken urteotan martxan jarritako ekimen eta jardueratan islada.

### Berrikasi eta berrikusi

Euskara elkarteen sorreratik ekintza eta jakintza uztartu izan da mugimenduaren jardueran. Inguruaren ezagutzatik eta sarri intuiziotik euskara elkarteek euskaraz bizitzeko gune eta uneak sortu dituzte 80. hamarralditik aurrera. Ibilbidea oparoa izan da eta zalantzarik gabe, euskarak eta hizkuntza komunitateak aurrerapausuak eman ditu urte guzti hauetan, neurri handi batean, euskaltzaleok eta euskararen gizarte mugimenduak egindako lanari esker.

2010ean abiatutako gogoetaldian edonola, atzera begirako irakurketa kritikoa

egiteko beharra argi azaldu zen eta egindako lan eskerga baloratzeko beharra nabarmendu zen Euskaltzaleen Topagunean. Era berean, ekintzarekin batera, pentsamendua eta jakintza berreskuratu beharreko eginkizunak direla argi agertu zen mugimenduko kideen aldetik.

Gogoetaren bigarren zatia amaitutakoan abiatu zen taldea, 2013ko urtarrilean. Euskaltzaleen Topagunearen ekimenez sortutako taldea da, eta sorreratik anitzak izan dira taldean landu diren gogoeta ildo eta aztergaiak. Orain arteko ibilbidean, beti saiatu izan da Topagunean dauden



“Errealitatearen irakurketa zorrotz eta egokia falta izan da askotan euskalgintzan oro har. Ametsaren eta errealitatearen artean eten handiegia dago. (...) Boluntarismoaren meneko irakurketa oso prekarioan oinarrituta diseinatu dira askotan euskara elkarteen plangintzak, baina ikuspegi soziologiko sendoa nahitaezkoa da errealitatean eragiteko” (XXI. mendeko euskaldunon elkarteak, Oinarriparrak; 2011; 18. orr).

Helburu horrekin sortu da *Topalabea taldea* beraz, eta eginkizun horren lehen urratsetako bat izan da Berrikasi eta Berrikusi dokumentua sortzea, gogoetarako eta euskaltzaleen mugimendurako baliagarri izateko bokazioz jaio dena. Orain, mugimendu osoarentzat aukera zabaltzen da, tokian tokiko errealitatera ekarri eta lantzekoa.

Atzera emandako begiradak etorkizuneko estrategiak irudikatzen oinarri ezinbestekoak direla sinestuta, *Berrikasi eta Berrikusi* testuan, hizkuntza komunitatearen eta euskaltzaleen mugimendu antolatua argazkia eta proiektzioa egin nahi izan da. Begirada bat eta proiektzio bat, tokian tokiko begiradak eta proiektzio propioak egiteko lagungarri izan daitekeena.

Euskaltzaleok, aldaketa garaiotan, begirada eta proiektzio partekatuak behar ditugu eta *Topalabea taldeak* bere ekarpena egin nahi izan du, euskaltzaleon ekinaldi berri baterako oinarri bat jartzeko. Eztabaidara zabalik dagoen irakurketa da, beraz, *Berrikasi eta Berrikusi*. Baina gonbidapena ere bada, euskaltzaleok antolatuta eta batera, herri honen etorkizuna, beste edozeren gainetik, euskaratik eta euskaraz eraiki dezagun; jakintzatik, etorkizuneko ikuspegiz eta harrotasunez.

Ondokoek osatzen dute Topalabea taldea:

- **Kike Amonarriz** (Tolosa, 1961); soziolinguista, arloan lan ugari egindakoa. Tolosako Galtzaundi euskara elkarteko kidea.
- **Julen Arexolaleiba** (Arrasate, 1962); Arrasateko AED elkartearen liberatu modura ibilia, soziolinguista eta HUHEZIn irakaslea. Jazten aldizkariaren zuzendari izandakoa eta Adorez eta Atseginez mintegian gidaria.
- **Xabier Erize** (Lleida, 1955); filologo eta soziolinguista, Nafarroako historia soziolinguistikoa doktore-tesia egin zuen. Hainbat ikerlanetan aritutakoa.
- **Mikel Irizar** (Ormaiztegi, 1954); Euskaltzaleen Topaguneko eta Tokikom-eko lehendakari izana, baita Goiena Komunikazio Taldeko lehen zuzendaria.
- **Elena Laka** (Eibar, 1966); abokatua, gaur egun Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria. Eibarko ...Eta Kitto! Euskara elkarteko kidea.
- **Iker Martinez de Lagos** (Bilbo, 1976); Euskaltzaleen Topaguneko idazkari eta komunikazio arduraduna; Bilboko Mahatserriko Asapala euskara elkarteko kidea.
- **Iñaki Martinez de Luna** (Gasteiz, 1950); soziolinguista, Geu elkarteko kide eta lehendakari izandakoa. Soziolinguistika Klusterreko lehendakari ere izan zen.
- **Jasone Mendizabal** (Arrasate, 1968); Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaria, Arrasateko AED elkarteko kidea eta Arrasate Komunikabideak elkartearen aritutakoa.
- **Jon Sarasua** (Aretxabaleta, 1966); irakaslea HUHEZIn, Sorguneak ikertegiko kide eta hainbat libururen idazlea, tartean 2013an argitaratutako Hitzunpolisa saiakera.
- **Ibon Usarralde** (Andoain, 1978); soziologoa eta kudeatzailea; Euskaltzaindiaren Sustapen batzordekidea. Pasaiko Portu Agintaritzako hizkuntza-kudeaketa eta kalitate arduraduna. Azken urte hauetan Soziolinguistika Klusterreko zuzendari lanetan aritu da.

## Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena. Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuarentzat erreferentzia puntua. Hiri garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua. Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua. Interneten bereizten gaituen puntua. Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua. Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarrala izango dena. Anima zaitz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago [www.domeinuk.eus](http://www.domeinuk.eus) webgunean.

Hemen duzu zure puntu berria



gure domeinua



**euskaltzaleen  
topagunea**

Landako etorbidea, 4 . 48200 Durango,  
Bizkaia.  
T: 94 621 57 80 / @: info@topagunea.eus

**topagunea.eus**

